

## **ToShare BEHATOKIA. Aberastasunaren banaketa zuzen baten alde.**

### **SARRERA:**

Behatokiaren izenaren aurrekariak dira, batetik, UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearen “berdintasunaren alde eta aberastasunaren banaketa zuzen baten alde” lema, eta bestetik, *ToShare Addressing technological transformations: exploring and sharing knowledge to co-create a Strategy for a diverse, inclusive, sustainable and smart Europe* izeneko proiektu europarra, zeina Horizon 2020 deialdian aurkeztu baitzen 2018ko martxoaren 13an.

Behatoki honek bat egiten du UPV/EHUren egiteko honekin: “kalitatezko ikerketa gauzatzea, lankidetzaz bidez ezagutza sortuta eta gero hura lurralde ingurunari eta nazioarteko komunitateari transferituta” eta unibertsitatearen ikuspegian ere islatuta dago; izan ere, UPV/EHUK “nazioarteko ikerketa profila indartu nahi du erronka berriei aurre egiteko –gizarte, ekonomia eta ingurumen erronkak–, gizartearen eraldatze prozesuan lider izan nahi baitu, betiere jakintzaren bitartez” eta “erroak bere ingurunean dituen unibertsitatea da, eta haren helburua da gizarte konpromisoaren arloan erreferentziatzeko eredu bilakatzea eta Euskal Herriaren kultur garapenean betetzen duen eginkizuna indartzea”. Era berean, ekarpen bat egiten die UPV/EHUren Plan Estrategikoaren (2018-2021) “III. ildoak.- gizartearekiko harremana” atalaren lehen eta bigarren helburuei: “Unibertsitatea garapen jasangarria, inklusioa eta gizarte konpromisoa sustatzen duen erakunde bihurtzea” eta “lidergoa indartzea, jakintza sortzeko eta transferitzeko eragile gisa eta euskal gizartearekin lankidetzan aritzeko eragile gisa, gizartearen lehiakortasuna eta garapena hobetzeko”. Bestalde, Behatokia 2030 Agendarekin konprometituta dago, haren erronkei helduko dieten proiektu berritzaileak martxan jartzeko espazio baten sorrerarekin, eta, horrez gain, baterako lana sustatuko du unibertsitatearen eta beste gizarte eragile batzuen artean, ikaskuntza komunitate zabalen bitartez, Nazio Batuetako Garapen Jasangarriaren Helburuen inguruan (GJH).

Behatoki bat izateko arrazoia haren funtzionamendu arina da. Gainera, Euskadin eta UPV/EHU bertan antzeko arlotan lanean diharduten beste behatoki batzuk egoteak lankidetzaz errazten du. Behatoki horien artean, aipagarriak dira OVES/GEEB (gizarte ekonomia), Ikuspegi (migrazioak), Informe laboral Euskadi (enplegua), OMAL (multinazionalak Latinoamerikan), eta antzeko beste batzuk daude beste eskualde edo herrialde batzuetan, hala nola Kataluniako DESC behatokia, Andaluziako Desberdintasunaren Behatokia, Aragoiko Desberdintasunaren Behatokia, Aragoiko Desberdintasunaren Behatokia, Nafarroako Gizarte Errealitatearen Behatokia, Argentinako Padre Pedro Arrupe Aberastasunaren Behatokia, eta Observatorio das Desigualdades.

Behatokian UPV/EHUren hainbat institutuk parte hartzen dute, hala nola Hegoa Institutuak, garapen jasangarrirako hezkuntzarekiko konpromisoaren alde lana eginez, Gezki Institutuak, ekonomia sozial eta solidarioaren arloan, eta Parte Hartuz ikertalde finkatuak, gure gizartearen balio demokratikoak indartzeko herritarren parte hartzearen alde lana eginez. Era berean, Euskadiko erakunde publiko eta pribatu askorekin egindako lankidetzaz handiaren emaitza gisa, sare ireki bat eratu da, Behatokiaren lanetan parte hartzen eta horiek babesten dituen.

### **JUSTIFIKAZIOA:**

NBERen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, 25. artikuluan, honako hau aitortzen du: “Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak,

bizitokia, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere”.

Aldarrikapen beraren 22. artikuluan, onartzen da ere honako hau: “Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomia, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetzeko”.

Aurreko eskubideak 1966ko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunaren (aurrerantzean, EGKeni) 11. artikuluan garatzen dira, eta itun hori Espainiako barne antolamenduaren parte bat da, herrialdeak berretsi egin baitzuen (BOE, 103. zk., 77-4-30). Itunaren 11. artikuluan, beraz, honako hau aitortzen du: “pertsona orok duen eskubidea, norberak eta norberaren familiak bizitza-maila egokia izateko, baita elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak ere, eta bizitza baldintzak etengabe hobetzeko”<sup>1</sup>.

Eta EGKeni 2.1 artikuluan dioenaren arabera: “Itun honetako estatu alderdi bakoitzaren konpromisoa da neurri, batik bat, ekonomikoak eta teknikoak hartzea, alde bakarrez nahiz nazioarteko laguntzaren eta lankidetzaren bidez, euren baliabideen arabera ahal duten neurriraino, arian-arian lortzeko, egoki diren bide guztiak baliatuz, bai eta, bereziki, legegintzazko neurriak harturik ere, hemen aitortutako eskubideen erabateko eragingarritasuna”.

*Egoki diren bide guztiak baliatuz* adierazpena zentzu zabalean ulertu behar da, eta informazio esanguratsua botere publikoek dutenez, haiei dagokie zehaztea zein diren bide egokienak eskubide horiek arian-arian gauzatzeko, EGLEBren arabera (1990). Horrek esan nahi du, beraz, administrazio publikoek probaren zama hartu behar dutela eta erakutsi behar dutela martxan jarritako neurriak eta politikak egokiak direla eskubide sozioekonomikoen betetze maila egoki bat bermatzeko. Halaber, tresna baten egokitasuna, azken finean, gizarte eskubideak gautzeko haren eraginkortasunaren mende dago, *Itunaren barne handitzearen 9. iradokizun orokorrean* jasotzen denaren arabera (EGLEB, 1998). Eskubide horiek, beraz, lotesleak dira estatuentzat, eta Espainiari dagokionez, hainbat autonomiatako gobernuak ere barruan sartzen dira, haien eskumenen irismenaren arabera, eta, gainera, banakako kexak ere jar daitezke, EGKeni adierazitako eskubideren bat urratzen denean, Espainiak 2010ean berretsi baitzuen itun haren Aukerako Protokoloa, aurrerantzean (EGKeni-AP)<sup>2</sup>.

Orain dela ez hainbeste, 2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuetako estatu kideek GJHk adostu zituzten New Yorken, pertsonen bizi baldintzak hobetzeko lan agenda zabal baten barruan; bertan, 17 helburu eta elkarri lotutako 169 helmuga<sup>3</sup> zehazten dira, modu

<sup>1</sup> Horri dagokionez, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Batzordeak, aurrerantzean EGKeniB (2012), gomendio hau egin zion Espainiari:

Hartutako austeritate neurri guztiek itunaren eskubideen gutxieneko oinarritzko edukia identifikatzea, eta oinarritzko eduki hori babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzea, edozein egoeratan, bereziki talde eta pertsona kaltetuei eta baztertuei erreparatuta.

<sup>2</sup> EGKeniBk (2/2014 zenbakidun komunikazioa, 2015eko ekainak 1-19 bitarteko 55. bileren aldirian onartutako irizpena) gomendio historiko bat eman zuen, EGKeni-PEren bertutez erabakitako lehen kasua izan baitzen eta Espainia etxebizitzarako eskubidea urratzen ari zela ebatzi baitzen. Grove Chris and Ikawau Daniela (2015) egileek bost arrazoi nabarmentzen dituzte komunikazioaren garrantzia azpimarratzeko.

<sup>3</sup> Hauek dira:

GJH. 1. Pobreziarekin amaitzea bere forma orotan eta mundu osoan

GJH. 2. Gosearekin amaitzea, elikagai babesa eta nutrizioaren hobekuntza lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

GJH. 3. Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietako pertsonen ongizatea sustatzea

integratuan eta zatiezinean. Agenda hori eta, zehazki, helburu horiek lehengo Milurtekoaren Garapen Helburuei heltzen diete berriro, eta haiek lortu ez zutena nahi dute lortu, garapen jasangarriaren hiru dimentsioak bateratuta: ekonomikoa, gizartea eta ingurumena.

Alabaina, giza eskubideak eta GJHak lortzeko asko geratzen da oraindik, areagotu egin baita aberastasunaren pilaketa, munduaren egonkortasuna kolokan jarritz. Ostera, nahikoa aberastasuna izateari buruzko informazioa eta gizarte sentsibilizazioa falta da, teknologia berriei esker, neurri handi batean, eta, bertaz, arazoaren larritasuna haren banaketa bidegabean datza<sup>4</sup>. Lanaren kalitate txarrari eta banaketa desorekatuari aurre egiteko alternatiben gaineko kontzientzia nahikorik ere ez dago, horren barruan sartuta bai ordaindutako lana (enplegua), bai ordaindu gabekoa (etxekoa, zaintzari lotutakoa eta boluntarioa), zeinak eragin nabarmena baitauka genero berdintasunaren gabezia.

## HELBURUAK:

Aberastasunaren bidezko banaketaren arloan jakintza sortzeko aukera emango duten ikerketak sustatzea, gero jakintza hori, erakunde publikoen eta pribatuen sare baten laguntzaz, gizarteari helarazteko, dauden aukeren gainean sentsibilizatu eta prestakuntza jaso dezan gizarte ongizatea indartzeari begira.

Gai honek lotura estua du beste gai batzuekin, hala nola NBEren Giza Eskubideak eta GJHak, 4.0 industria eta teknologia berriak, ekonomia sozial eta solidarioa, herritarren parte hartzea eta demokrazia indartzea, lana eta enplegua, genero berdintasuna, migrazioak, eta hezkuntza inklusiboa, iraunkorra eta etengabea.

---

GJH. 4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta denentzako ikaskuntza aukerak sustatzea bizitza osoan

GJH. 5. Genero berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahaldundatzea

GJH. 6. Guztientzako ura izatea eta haren kudeaketa jasangarria eta saneamendua bermatzea

GJH. 7. Denontzako energia eskuragarria, segurua, jasangarria eta modernoa bermatzea

GJH. 8. Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina sustatzea denontzat

GJH. 9. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea

GJH. 10. Herrialdeen barruan eta artean emandako desberdintasunak murriztea

GJH. 11. Hiri eta giza asentamendu inklusiboak, seguruak, moldagarriak eta jasangarriak lortzea

GJH. 12. Kontsumo eta ekoizpen eredu jasangarriak bermatzea

GJH. 13. Premiazko neurriak hartzea klima aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko

GJH. 14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak kontserbatzea eta modu jasangarrian erabiltzea

GJH. 15. Lur ekosistemen erabilera jasangarria babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzeari aurre egitea, luraren degradazioa geratzea eta lehengoratztea, eta biodibertsitatearen galdera etetea

GJH. 16. Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, justizia denon eskura egotea erraztea eta erakunde eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

GJH. 17. Inplementazio bideak indartzea eta Garapen Jasangarrirako Munduaren aliantza indarberritzea

<sup>4</sup> Zentzu horretan, Oxfamek, *Premiar el trabajo, no la riqueza* izeneko 2018ko urtarrileko txostenean, gobernuei desberdintasunari buruzko 21. orrialdean egindako bost gomendioen artean, honako hau agertzen da: “**Colaborar para lograr una revolución de datos sobre desigualdad.** Todos los países deberían aspirar a producir datos anuales sobre la riqueza y los ingresos de todos sus habitantes, especialmente los correspondientes al 10% y al 1% más rico. Además de financiar más encuestas de hogares, deben publicarse otras fuentes de datos que arrojen luz sobre la concentración de ingresos y riqueza en lo más alto.” Eta oin oharrean hauxe gaineratzen du: “*Esto debería incluir datos sobre ingresos, patrimonio e impuestos; datos sobre mercados de patrimonio y bienes de lujo; datos de las empresas que gestionan la riqueza y fortunas; y estudios sobre salarios. Estos datos deberían desagregarse por género, edad, ocupación, región y, si corresponde, grupos étnicos.*”

Horrela, ekarpen bat egin nahi dugu politika publikoetan gehiago parte hartuko duten herritar kritikoak sor daitezen, horrek ekarriko baitu demokrazia indartzea eta erakundeek nahiz gobernuak aberastasuna modu zuzenago batean banatzeari ekitea, gizarte babes sistema egoki bat lortzeko. Horrela, aurrerapen esanguratsua lortuko da ere Giza Eskubideen nazioarteko konpromisoen betetze mailan eta Garapen Jasangarrirako Helburuen lorpenean.

#### **LAN ILDOAK: IKERKETA, PRESTAKUNTZA ETA DIBULGAZIOA:**

- 1) Hainbat ikerketa lerro bultzatzea. Horren barruan sartuko dira gradu eta master amaierako lanak eta doktore tesiak, zeinetan, besteak beste, honako gai hauek landuko diren:
  - Nazio Batuen Giza Eskubideak eta Garapen Jasangarrien Helburuak betetzean, aberastasunaren banaketari lotuta dauden eskakizunak.
  - Aberastasun kontzeptua sakonago aztertzea, BPGri lotuta.
  - Industria 4.0k eta teknologia berriek sortutako aberastasuna identifikatzea.
  - Aberastasunaren banaketa ezagutzea.
  - Zerga sistema progresiboak bilatzea, aberastasunaren banaketa zuzen baterako.
  - Gizarte babes sistema indartzea eta Oinarrizko Errenta baten sarrerarik eratorritako ondorioak aztertzea.
- 2) Tailerretan, ikastaroetan eta beste prestakuntza espazio batzuetan parte hartzea.
- 3) Webgune bat sortzea, non jardueren berri eman eta hainbat ikerketa argitaratuko batira, eta, modu osagarrian, newsletter bat bidaltzea maiztasun batez eta presentzia edukitzea sare sozialetan.
- 4) Euskaditik kanpoko beste behatoki eta erakunde batuekiko harremana, loturak eta aliantzak sortzeari begira.

#### **ANTOLAKUNTZA**

Behatokia UPV/EHUren Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean sortu da, eta bertan du egoitza, eta haren partaide dira Gezki (gizarte ekonomia) eta Hegoa (garapen jasangarrirako lankidetzak eta hezkuntza) institutuak, Parte Hartuz ikertalde finkatua (parte hartzea) eta UPV/EHUko beste pertsona batzuk. Erakunde kolaboratzaile publiko eta pribatuen sare ireki baten babesa du, eta erakunde horien tartean dira, besteak beste, Euskampus Fundazioa, sindikatuak, enpresak eta REAS, EAPN, Harresiak Apurtuz GKE koordinakundea, Oxfam, SIIS eta EDE bezalako sareak. Horiek guztiek ikertzen eta emaitzak gizarteratzen lagunduko dute.

Antolakuntza Batzorde bat egongo da. Batzordeburua UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko dekanoa edo hark ordezkari gisa izendatutako pertsona izango da, eta batzordea osatuko dute fakultate beraren ataleko dekanorde koordinatzaileak edo hark ordezkari gisa izendatutako pertsonak, UPV/EHUko Gezki Institutuaren ordezkari batek, UPV/EHUren Hegoa Institutuaren ordezkari batek eta UPV/EHUren Parte Hartuz ikertalde finkatuaren ordezkari batek.